

UEU

Urteko Txostena 2014



UEU
Urteko Txostena 2014

7	Sarrera
7	Zer gara?
7	Zer egiten dugu?
8	Nolakoak gara?
9	Non gaude?
11	UEU 2014
11	Iñaki Alegria, UEUko Zuzendari berria
12	Elhuyar Fundazioaren Merezimendu Saria, UEUrentzat
13	Natura Zientziak saileko bloga, saritua
13	Aditu duzu? Irratsaioa martxan jarri dugu
13	Euskal Unibertsitatea, on line titulazio ofizialak eskaintzeko proiektua
14	UEU eta HABEren arteko hitzarmena
14	UEU, puntu eus aitzindaria
15	Jarduera akademikoa
15	Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta lurraldea I. jardunaldiak
15	Udaberriko eskaintza
15	Osasun-zientzien II. Topaketak
16	Udako ikastaroak: #saretu
16	Agroekologiari buruzko graduondoko berria antolatu du UEUK
17	UEUK MoodleMoot Euskadin parte hartu du
17	Gerra Zibilari eta Erdi Aroari buruzko bi auzolandegi gazteentzat
18	Udazkeneko eskaintza
18	HTML5 MOOC ikastaroa
18	Dakiguna Erakutsiko dizugu
19	Argitalpengintza
19	10 liburu berri
19	Uztaro aldizkaria
19	Aldiri aldizkaria
19	Unibertsitateko ikasmaterialak sustatzeko diru-poltsak
20	Buruxkak liburutegi digitala
20	Sarako Idazleen Biltzarra
20	Durangoko azokan
21	Informazio eta komunikazio teknologiak
21	Inguma datu-basea
21	Unibertsitatea.net
22	Tesiker
22	UEU.EUS web gunea
22	UEU #Kzjaia -n

Sarrera

Zer gara?

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

Udako Euskal unibertsitatea (UEU) irbazi-asmorik gabeko eta Onura Publikoko aitormena duen kultur elkarte da. 1973. urtean sortu zen Ipar Euskal Herrian eta orduz geroztik bere helburu nagusia Euskal Unibertsitatea sortzea da. Horrekin batera, honako lanildo nagusi hauek ditu:

- Euskararen eta unibertsitatearen arteko zubiak eraikitzea.
- Euskal komunitate zientifikointelektuala biltzea.
- Unibertsitategaiak ekoitzi eta gizartearen esku jartzea. 1.000 bazkide baino gehiagok osatzen dute UEUren oinarri soziala jakintza alor desberdinetako sailetan antolatuta.

Zer egiten dugu?

Euskal Unibertsitatea sortzeko ildo

UEUren helburu nagusia dugu hau. Izan ere, euskal gizartea bere osotasunean garatzeko ezinbesteko ikusten dugu maila goreneko hezkuntza erakundea sortzea honako ezaugarri hauekin: euskal gizartearen beharretara egokitua, izaera soziala izango duena, Euskal Herria bere osotasunean hartuko duena eta euskara hizkuntza ardatz nagusia izango duena. Helburu hau lortze bidean etengabe lanean ari gara. Jada hainbat saio burutu ditugu eta etorkizunean jarraikortasuna izango duen ildo bat izango da zalantza barik.

Argitalpengintza: liburuak eta aldizkariak

Liburugintzaren alorrean UEUren helburua bikoitza da: azpiegitura bibliografikoa sortzea batetik, eta arlo teknikoetan euskarazko terminologia eta sintaxia finkatzea bestetik. Unibertsitate mailako ikasketa zein ikerketan bibliografia zabala edukitzea ezinbesteko baldintza da unibertsitate eredu osasuntsu bat lortzeko. 1978. urtean lehen liburua argitaratu genuenetik, dagoeneko ehunka izenburu ditugu gure katalogoan, eta unibertsitate mailako euskarazko testugintzan dekanok bilakatu gara.

Jarduera akademikoa

Aurrekoa lortze bidean, goimailako formazioa eskaintzeko lan egiten dugu. Etengabe aldatzen den gizarte honetan beharrezkoa da ezagutza berriak barneratzea. Bide honi jarraituz, unibertsitate mailako formazioa, ikastaro espezializatuak, mintegiak, jardunaldiak, irakasle zein profesionalei zuzendutako prestakuntza, udako ikastaroak eta hauekin lotutako ikerketa lantzen ditugu UEUn. Alor honetan dagoeneko erreferente bilakatu gara.

Informazio eta Komunikazio Teknologiak

Goimailako formazioaren beharrak asetzeko badira urteak teknologia berriak uztartzen ditugula. IKTak egungo baliabideak dira eta hezkuntza munduan erabiltzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Horregatik, hainbat proiektu jarri ditugu gizartearen eskura Interneten: Inguma, euskal komunitate zientifikointelektualaren datu basea (www.inguma.eus); UZTARO, Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria (www.uztaro.eus); UEUren liburutegi digitala (www.buruxkak.eus); Uztaro.eus, UEUren Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria (www.uztaro.eus); Unibertsitatea.net, komunitate unibertsitario euskaldunaren ataria (www.unibertsitatea.net); Kondaira, Historiako aldizkari elektronikoa (www.kondaira.net); eirakaskuntza gunea (<http://eirakaskuntza.ueu.org>);...

Nolakoak gara?

Kalitatea

UEUn kalitatea dugu helburu aurrera eramaten ditugun jarduera eta proiektu guztietan. Hizkuntzaren zaintza, eduki, metodologia, material, baliabide eta gainontzeko bitartekorik hoberenak erabiltzen ditugu azken emaitza onena izan dadin.

Gizartearekiko erantzunkizuna

Onura publikoko izaera izanda, UEUren eginbeharra da gizarteak goimailako prestakuntzan dituen beharrak zeintzuk diren jakin eta horiei erantzuna ematen saiatzea. Ahal den neurrian, gainera, eskainitakoa mundu guztiaren eskura modu erraz eta erosoenean jartzen saiatzen gara.

Euskararekiko konpromisoa

Euskara da UEUren ardatz nagusietako bat, gure izatearen arrazoietakoa bat. Unibertsitate-mailako garapena euskararen bitartez dugu helburu eta horretarako bideurratzailea izan gara (eta gara) terminologia zientifikoa definitzeko eta euskararentzat itxitako ateak irekitzeko orduan. Euskara da Udako Euskal Unibertsitatearen komunikazio zein lanerako hizkuntza, eta euskaraz sortzen, antolatzen eta gauzatzen ditugu gure jarduera guztiak.

Puntapuntako gaiak

Unibertsitateak gizartearen motorra izan behar du berrikuntza eta aurrerapenen aldetik. UEUren egitekoa da gai berritzaileak lantzea, mamitzea eta ondoren, gizarteratzea. Horretarako, aditu onenen, erakunde zein elkarte puntakoenen aliantzak biltzen ditugu.

Izaera partehartzailea

UEUren izaera soziala da. UEUren oinarria bazkideok osatzen dugu eta barneegitura guztiak irekiak ditugu lan egin nahi duenarentzat. Sare zabal horrek proiektua etengabe aberasten du.

Hurbiltasuna

UEU gizartetik zein beste erakundeetatik gertu dagoen elkarte da. Harreman zuzen, goxo eta hurbileko horri esker, proiektua urtez urte sendotuz doa, eta gizartearen eskaerak zuzenezuzenean jaso eta erantzuteko aukera ematen digu.

Autonomia

UEUn ez gaude erakunde, egitura edota talde konkretuen izaera eta unean uneko interes edo jokabideen menpe. Mendekotasun bakarra gure helburuekiko dugu, eta berauek lortzeko erabakiak UEUko bazkideek osatzen duten Batzat Nagusian hartzen dira.

Dinamikotasuna

Hezkuntzaren mundua egunez egun aldatzen ari da. Ikasketa unibertsitarioak ikasturtero moldatzen dira, lana bilatzeko zein hobetzeko gure burua etengabe prestatzea ezinbestekoa da, teknologia berriek beste hezkuntza ikuspegi baten aurrean jartzen gaituzte urte batetik bestera. Egoera honi aurre egiteko beharrezkoa da moldatzeko gaitasuna duen erakunde bat izatea; eta UEU hala da.

Konpromisoa

Inguruan lan egiten duten pertsonen atxikimenduak ahalbidetzen du egun UEUren proiektua sendoa izatea eta hezkuntza alorreko erreferente bilakatzea.

Non gaude?

Lau egoitza ditugu

Egoitza Soziala Bilbon

Erribera kalea 14, 1D
48005 Bilbo
T (00 34) 94 679 05 46
F (00 34) 94 479 30 39
ldazkaritza@ueu.eus

Egoitza Akademikoa Eibarren

Markeskoa, Otaola 1
20600 Eibar
T (00 34) 943 82 14 26
F (00 34) 943 82 06 16
markeskoa@ueu.eus

Egoitza Soziala Baionan

Arsenal plaza 1
64100 Baiona
TF (00 33) 05 59 25 60 56
iparraldea@ueu.eus

Egoitza Soziala Iruñean

Joaquin Beunza 13, behea
31014 Iruñea
T (00 34) 948 36 25 63
F (00 94) 948 38 46 59
nafarroa@ueu.eus

UEU 2014

Iñaki Alegria, UEUko Zuzendari berria

Martxoaren 15ean UEUk Batzar Nagusia egin zuen Eibarko Ikastetxe Nagusian. Bertan, Talde Eragileak aurkeztutako 2013ko balorazioa eta 2014ko egitasmoa onartu ziren. Era berean, batzarrak zuzendari berria aukeratu zuen. Datozen urtetan Iñaki Alegria izango da UEUko Zuzendaria. Honek eskerrik beroenak eman zizkion Karmele Artetxeri, azken lau urte zail hauetan egindako lanagatik.



Hauek azpimarratu ditu Alegriak:

UEUren egitekoa

UEU irabazi-asmorik gabeko eta Onura Publikoko aitormena duen kultur elkartea da. Bere helburu nagusia Euskal Unibertsitatea sortzea da, baina horrekin batera, euskararen eta unibertsitatearen arteko zubiak eraiki, euskal komunitate zientifikoaren bilgune izan eta unibertsitate-gaiak ekotzi eta gizartearen esku jartzen egiten du lan.

Unibertsitate-sistemaren barnean sare euskalduna eratzen du, eta bestetik eragile eta akuilu-lanak egiten ditu euskal unibertsitate-sistema sortzeko, beti ere beste eragileekin elkarlanean. Horren adibide dira urtean zehar antolatzen ditugun jardunaldiak (Informatikari Euskaldunen Bilkura, Lurralde eta Hizkuntza, Natur Zientzien jardunaldiak, Matematikarien bilkurak, etab.), Unibertsitatea.net ataria eta Inguma datu-basea, adibidez.

2014Ko egitasmoa

Alde batetik, orain arteko ibilbideari jarraipena emango zaio, bai arlo estrategikoan (Euskal Unibertsitatearen proiektua), bai hezkuntzaren ildoan (uda/negua, bertakoa/onlinekoa, etengabeko formazioa/graduondokoak) eta baita argitalpen eta datu-baseen jardunean (liburuak, aldizkariak, Inguma datu-basea, Unibertsitatea.net).

Baina, bestetik, finantzazio aldetik arazo larrienak gainditu denaren esperantzaz (Eusko

Jaurlaritzako partida izenduna berreskuratu du aurten), indarberrituta eta anbizio gehiagorekin lan egin nahi du, proiektu berriei ekiteko teknologia berrien laguntzaz (online irakaskuntzari begira batez ere). Ikerlari gazteen ildoan ere sendotu nahi du UEUK, beraien ikusgaitasuna bultzatuz eta haien arteko ezagutza sustatuz. Unibertsitatea.net atarian egiten ari garen elkarrizketa-sortaz gain, 2015eko udaberrirako ikerlari gazteen bilkura egiteko proiektua daukagu esku artean. Horretaz gain, UEUren proiektuaren baitan parte hartzea indartu, gure eskaintza zabaldu eta euskalgintza zein hezkuntza alorreko beste eragileekin harremanak sendotzeko nahia azaldu du.

Euskal unibertsitatea

UEUren helburu estrategikoa da Euskal Unibertsitatea euskalduna, nazionala eta herrikoia sortzea. Lan horretan bidelagun garrantzitsuak ditu UEUK, Euskal Unibertsitatearen elkarteak, zeinetan gurekin batera Ikastolen Elkarteak, EKT, AEK, Kontseilua, Ipar-Hegoa Fundazioa eta Elkar dauden. Europan, azken urteetan, unibertsitate berriak sortzen ari dira, horietatik asko online edo erdi-presentzialak. Bistakoa da arlo horretan hutsune handia dagoela Euskal Herrian. Gaur gaurkoz hemen ez da gradu titulurik eskaintzen euskaraz online. Behar hori erantzuna emateko proiektu bat lantzen ari da UEU, Euskal Unibertsitatea elkartearekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Proiektu honek, aurrera ateratzekotan, atxikimendu zabala beharko du jendartetik eta instituzioetatik.

Elhuyar Fundazioaren Merezimendu Saria, UEUrentzat

Apirilaren 10ean banatu ziren 2013ko zientzia-dibulgazioko CAF-Elhuyar sariak. Dibulgazio-artikuluaren kategorian Gorka Azkune Galparsorok eta Eneko Bachiller Otamendik jaso dituzte sariak. Kazetaritza-lanen arloan Gorka Zabaleta Lopetegik eta Amaia Portugal Gonzalezek, eta, zientzia gizartean sorkuntza-beka, berriz, Xabier Erkizia Martikorenarentzat izan da. Azkenik, Elhuyar Fundazioaren Merezimendu saria Udako Euskal Unibertsitateak jaso du.

Ekitaldia bukatzeko, Txema Pitarke Elhuyarreko lehendakariak Elhuyar Fundazioaren Merezimendu saria eman dio Udako Euskal Unibertsitateari. Iñaki Alegria UEUren zuzendari izendatu berriak jaso du saria. Udako Euskal Unibertsitateari izena txiki geratzen zaiola nabarmendu du Pitarkek, "udan bakarrik ez, urtaro guztietan egiten baitizkio ekarpenak gizarteari, ikastaro, mintegi eta bestelako ekintzen bidez", eta erakundearen izaera dibulgatiboa, elkarlanerako gaitasuna, eta diziplinartekotasuna bultzatzeko jarrera goraiatu ditu. UEU osatzen duten langile eta 1.000tik gora bazkideen gaitasuna azpimarratu ditu Pitarkek. 41 urteko ibilbidean "hainbat diziplinatan egindako dibulgazio lanagatik, euskararentzat eremu berriak lantzeagatik, eta elkarlanerako erakutsi duen gaitasunagatik" jaso du UEUK Elhuyarren Merezimendu saria. Pitrakeren hitzak bere egin ditu Iñaki Alegriak eskertza-hitzaldian, eta, berak ere, UEUko pertsonak izan ditu gogoan, "UEU zerbait bada, pertsonak direla", esan du.

Natura Zientziak saileko bloga, saritua

UEUko Natura Zientziak/Euskalnatura sailaren bloga saritu egin dute "Blogetan!" Argiak eta Azkue Fundazioak antolatu duten euskarazko blogen lehiaketan.

www.euskalnatura.net

Hauexek dira web gunearen helburuak:

- Euskal Herriko natura eta natur zientziak jende guztiaren eskura jartzea.
- Euskaraz interneten duen presentzia handitzen laguntzea.
- Naturzale gazteei gustuko dituzten gaiak eta jarduerak lantzea ahalbidetzea, eta jarduera horien bitartez ikasi ahal izatea.

Aditu duzu? Irratsaioa martxan jarri dugu

UEUK Aditu duzu? irratsaioa jarri du martxan. Aditu hitzarekin jolastu du, UEUK jakintza alor desberdinetako jakitunak biltzen dituelako. Irratsaioaren helburua goi-mailako hezkuntza eta ikerketa alorreko informazioa eskaini eta UEUren lana ezagutzera ematea da.

Oraingoz hilean behin emitituko da saioa. Dagoeneko Iñaki Alegria, Koldo Garcia, Uxo Anduaga eta Antton Alberdi ikerlariak elkarrizketatuko ditugu. Saioaren aurkezleak Mirari Martiarena, Amaia Ugalde eta Idoia Torregerai ueukideak dira. Irratsaioa hilaren lehen astelehenean emititzen da, eguerdiko 12:00etan.

Euskal Unibertsitatea, on line titulazio ofizialak eskaintzeko proiektua

UEUK maiatzean Euskal Unibertsitateari buruz hausnartzeko mintegia antolatu zuen bere bazkideekin, on line titulazio ofizialak eskaintzeko proiektuaz eztabaidatzeko asmoz. 2013. urtetik hona bide hori aztertzen ibili da UEU Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskal Unibertsitatearen aldeko Fundazioaren laguntzarekin.

Mintegi horretan azken urtean landutako txostena aurkeztu zen: kokapena, titulazioa nork emango lukeen, zein titulu izan daitezkeen interesgarrienak, zein irakasle mota aurreikusten diren, zein ikasleria egon daitekeen, lehen aurrekontua...

Mintegian bazkideek Euskal Unibertsitatea sortzeko bideen artean on line-ko tituluak eskaintzea aukera bat dela erabaki zuten, eta horren ondorioz, azterketan sakondu eta titulazio zehatz batzuk on-line eta euskaraz eskainiko balira nahikoa ikasle izango zuten jakiteko galdetegi bat zabaldu genuen. 750 erantzun jaso genituen.

UEU eta HABEren arteko hitzarmena

HABE eta UEUK elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatu zuten ekainean. Honen baitan, HABE Liburutegiak hainbat zerbitzu jartzen ditu UEUko bazkideen eskuetan. Besteak beste, Liburutegiko on-line zerbitzuak erabiltzeko erraztasunak eta baita ere, bazkideentzako alerta sistema egokituak.



UEU, puntu eus aitzindaria

UEU .eus domeinuko aitzindaria izan da. Unibertsitateak eta goi-mailako euskarazko etengabeko formazioak euskara eta euskal kulturaren komunitatean eta bere garapenean duen garrantzia kontuan hartuta erabaki du UEUK .eus domeinuaren bultzatzaile eta aitzindari izatea.

Ueu.eus web gunea gain, Inguma, Buruxkak eta Uztaro web guneak ere .eus dira.

Jarduera akademikoa

Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta lurraldea I. jardunaldiak

200 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMAK, Kontseiluak eta UEUK urtarrilean antolatu zuten "Hizkuntza eta Lurraldea. Lurraldea eta Hizkuntza" jardunaldian. Bertan, lurralde-antolamenduak eta hirigintzak hiztun-komunitatearengan duen eragina aztertu zuten. Euskal Herriko kasu batzuk ezagutzeaz gain, Aland Uharteak, Flandria eta Galeseko ordezkariak ere entzuteko aukera izan zuten bertan. Antolatzaileek konpromisoa hartu zuten ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) izeneko tresna definitzeko, bigarren jardunaldi batean aurkezteko.

Ekainean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, ASMOZ Fundazioak eta UEUK gai honetan sakontzeko MOOC ikastaroa antolatu zuten eta bertan 162 pertsonak hartu zuten parte.

Udaberriko eskaintza

UEUK udaberriko eskaintzan garrantzi berezia eman die on line ikastaroei. Martxoa eta maiatza bitartean, 10 ikastaro eskaini ditu UEUK Eibarren. Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza garrantzitsua bideratu du ikastaro hauetan parte hartuko duten gipuzkoarrentzat on line formazioa bultzatzeko. PLEA, oroimen historikoa, euskara-maila, Moodle, argazkigintza, ahots-teknika, eskola-libreak, sormena eta emozioak izan dira landutako gaiak. Guztira, 135 pertsonak eman dute izena ikastaro hauetan (goranzko joera).

Osasun-zientzien II. Topaketak

Maiatzaren 30ean egin ziren UEUK antolatutako Osasun-zientzietako ikertzaileen II. Topaketak. Bertan, alorreko 80 adituk parte hartu zuten. Bilkura honen helburua Osasun-zientzietako ikertzaile euskaldunen lerro zientifikoak aurkeztu, ikerlari horien arteko harremanak sendotu eta euskarazko ikerketa eta produkzioa bultzatzea izan da.

2010. urtean, bizi-zientzietan ikertzen zuten euskaldun asko batu ziren ikerketa-taldeen ikerketa-lerroak aurkezteko. Topaketa horien helburu nagusiak hauek izan ziren: ikerkuntza euskaraz egiten zela azalaraztea eta ikerlari euskaldunak elkar ezagutzea. Guztira, 160 lan-sinatzaile, 35 zentro/sailtako 69 parte-hartzaile eta 28 ahozko aurkezpen egin ziren. Lehenengo topaketa haietan, maiztasun batekin topaketak errepikatzeak aukera proposatu zen, ikertzaile euskaldunen arteko harremanak sendotzeko eta ikerketa-lerroen jarraipena egiteko helburuekin. Horregatik osasun-zientzietako ikertzaileen bigarren topaketak egin ditugu. Bertan, Osasun arloan ikerketa lerroak nondik nora dauden

aztertu nahi ditugu alor ezberdinetan: genetika, neurozientziak, farmakologian,... hau da, Euskal herrian Osasun arloan dauden ikerketako ildo garrantzitsuen egoera jakin nahi dugu, orain dela 4 urte lehen topaketetan egin genuen moduan Era berean, osasun-zientzietan diharduten ikerlari euskaldunen sarea sortzea dugu helburu.

Udako ikastaroak: #saretu

2014n UEUK 42 ikastaro antolatu genituen; 26 Eibarren (UEUren Ikastetxe Nagusian), 8 Baionan (AEKn) eta 8 Iruñean (Jaso Ikastolan). Jasotako proposamenak, ordea, 100 izan dira.

Iñaki Alegriak hitz hauek esan zituen aurkepenean: "Lau hamarkada daramatza UEUK euskara eta unibertsitatearen alde lanean. Denbora tarte horretan UEUK egindako ekarpena handia izan da: euskara unibertsitate esparruan landu zitekeen apustua egi bihurtzea, euskarazko hiztegi teknikoaren definizioa, euskal komunitate zientifikoarentzat bilgune izatea, proiektu berritzaileak martxan jartzeko gaitasuna, unibertsitate-mailako testugintzan eta formazioan egiten duen lan erreferentziakoa eta, noski, Euskal Unibertsitatearen aldarria. Azken bi urteak gogorak izan dira, baina zorionez gauzak pixka bat hobetu dira eta indartsu gatoz aurtengo eskaintza aurkeztera. Orain aipatutako zereginaz gain, ordea, UEUK betetzen duen funtzio garrantzitsuenetako bat azpimarratu nahiko nuke: unibertsitate-sistemaren barruan sare euskalduna biltzea. Hau da, jakintza eta aditu euskaldunen topagune eta akuilu izatea. Udako ikastaroak horren adibide argiak dira, eta sare hori osatzera gonbidatzen zaituztet". Azken urteetako arrakastari eutsi eta azken urte hauetako partaidetza handiena izan dugu bertan: 600 partehartzaile.

Agroekologiari buruzko graduondoko berria antolatu du UEUK

Ekainean UEUK 2014/2015 ikasturterako UPV/EHUn sustatu dituen hiru graduondokoak aurkeztu genituen Donostian. UEUren ildo estrategiko nagusienetako bat da goi-mailako formakuntzaren euskarazko eskaintza sustatzea, euskal gizartearen formazio eta hizkuntza beharrei erantzun eta Euskal Unibertsitatearen ildo indartzeko asmoz.

- Agroekologia: trantsiziorako gure bidea lantzen. BERRIA.
- Itzulpengintza eta teknologia.
- Hondakinen kudeaketa eta tratamendua.

UEUrentzat ildo estrategikoa da goi-mailako formakuntzarena, bi arrazoiengatik: alde batetik, gizarte aurreratuek ezinbestean behar dituztelako kualifikatutako adituak eta gero eta euskaldunagoa den gizarte batek aditu euskaldunak behar dituelako. Tamalez, oraindik gutxiengo bat da euskaraz maila honetan egiten den eskaintza. Hori dela eta, egon behar du norbait traktore lanak egingo dituen esparru honen alde; sinergiak bilduko dituen eta indarrak metatuko dituen. Horixe egiten dabil UEU. Urteik urtera, UEUK gizartearen beharrak aztertu, adituak bildu eta proposamen berriak gizartearen eskura jartzen ditu. Jakintzak eta jendea saretuz, azken finean. Master ez diren unibertsitate

mailako graduondoko tituluak ez dira oso ezagunak, baina oso ezaugarri interesgarriak dituzte: unibertsitate mailakoak dira baina lanbidetik gertu daude eta esperientzia handiko profesionalak ere parte har dezakete, intentsitate eta iraupen luze samarrekoak izanda (urte bete gehienetan) lanarekin batera eraman daitezke (egunean bi-hiru bat ordu dedikatu behar da).

UEUK MoodleMoot Euskadin parte hartu du

Ekainaren 13an MoodleMoot Euskadi 2014 egin da Bilbon FundaciónEDEK antolatuta. Bertan UEUK bi komunikazio aurkeztu ditu:

1. Irakaskuntza telematikoa: UEUren esperientzia eta koordinatzailearen figuraren beharra. Ireide Arriolabengoa i.arriolabengoa@ueu.org
2. Moodle-UEUren segurtasun kopiatarako estrategia. Emilio Delgado e.delgado@ueu.org

Gerra Zibilari eta Erdi Aroari buruzko bi auzolandegi gazteentzat

Aranzadi Zientzia Elkartek, UEUK, Udalbiltzak, UPV/EHUK, Adunako Udalak, Asteasuko Udalak, Zizurkilgo Udalak, Galipentzuko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean antolatu dituzte auzolandegi hauek. Gazteen formakuntza sustatzeaz gain, Euskal Herriko oroimen historikoa berreskuratzea dute helburu. 40 gaztek parte hartu dute esperientzia honetan.

- Auzolandegia Aduna-Asteasu-Zizurkilen Lehen auzolandegia, Gerra Zibila 1936-1937. Erresistentziaren oroimena eta aztarnen bila, uztailearen 7tik 27ra bitartean egin dute Adunan, Asteasun eta Zizurkilen (Gipuzkoa).
- Auzolandegia Galipentzun Bigarren auzolandegia, berriz, Nafarroako mugak Erdi Aroan, uztailearen 21etik abuztuaren 3ra egin dute Galipentzun (Nafarroa).



Udazkeneko eskaintza

UEUK udaberriko eskaintzan garrantzi berezia eman die on line ikastaroei. Iraila eta azaroa bitartean, 10 ikastaro eskaini ditu UEUK Eibarren. Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza garrantzitsua bideratu du ikastaro hauetan parte hartuko duten gipuzkoarrentzat on line formazioa bultzatzeko. Euskal Herriko ekonomia, oroimen historikoa, GeogebraPrim, Moodle, liburu elektronikoak, ahots-teknika, berrikuntza, emozioak, familia-harremanak eta estatistika izan dira landutako gaiak. Guztira, 110 pertsonak eman dute izena ikastaro hauetan.

HTML5 MOOC ikastaroa

UEUK Ikastaro hau Asmoz Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Elhuyar Fundazioarekin elkarlanean antolatu du. MOOC formatuan antolatutako 10 orduko ikastaro honetan ezagutu dituzte hobeto HTML 5-ek eskaintzen dituen aukera berriak, eta Interneteko nabigatzaileek jada implementatuta dituzten atalak praktiken bidez ikasi dituzte. 146 ikasleek parte hartu dute guztira formazio honetan.

Dakiguna Erakutsiko dizugu

UEUK eta Donostiako Euskara Patronatua elkarlanean egitasmoari jarraipena eman eta hiru hitzaldi eskaini ditu Donostian azaroan:

- '(Trans) feminismoa, abjekzioa, ezberdintasuna eta borroka ideologikoa'. Ainhoa Güemes.
- 'Ba al dago euskal umorerik?'. Uxo Anduaga.
- 'Bertso-sorkuntza automatikoa, posible da?'. Manex Agirrezabal.



Argitalpengintza

10 liburu berri

UEU unibertsitate mailako testugintzan erreferentea izaten jarraitzen du. Aurten 11 liburu argitaratu ditugu:

- Ingurugiroa: prozesuak eta kimika fisikoa
- Automatismoak eta kontrola
- Psikopatologia
- Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak
- Gorputza eta generoa: didaktika eta esperientziak
- Komunikazioa euskaraz ingeniartzan
- Ingurumen-kutsaduraren analisia
- Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro
- Garapen biologikoa eta kognitiboa bizi-zikloan
- Hirigintzaren oinarriak
- Eraikuntzaren biologia. Sarrera

Uztaro aldizkaria

UZTARO, Giza eta Gizarte zientzien aldizkariaren lau ale argitaratu ditugu. Zenbaki bakoitzetik artikulua bat guztion eskura jarri dugu uztaro.eus web gunean.

Aldiri aldizkaria

ALDIRI. Arkitektura eta Abar aldizkariaren lau ale argitaratu ditugu.

- 17. zenbakia: Pentsatu. Marraztu. Egin.
- 18. zenbakia: Eskuz ala makinaz?
- 19. zenbakia: Komunitaterako hirigintza
- 20. zenbakia: DIY arkitektura

Unibertsitateko ikasmaterialak sustatzeko diru-poltsak

UEUK unibertsitate-mailako euskarazko ikasmaterialak sustatzeko hiru diru-poltsatarako deia egin du 2014an ere. Poltsa bakoitzaren iraupena gehienez urtebetekoa da eta

diru-zenbatekoa, 1.000 eurokoa. Jakintza-arlo guztietara irekita dagoen deialdia da hau. Irabazleak hauek izan dira:

- Agurtzane Elordui Urkizak, Euskal Filologian doktorea, eta bestek aurkeztutako Transmedia Kazetaritza Laborategia
- Josu Lopez Gazpiok, Kimikan doktorea, aurkeztutako Kimika orokorreko eskuliburu praktikoa
- Unai Vazquez Puentek, Soziologian lizentziatua, eta bestek aurkeztutako Sistema globalizatuaren funtzionamendua

Buruxkak liburutegi digitala

UEUk 1978. urtean argitaratu zituen lehen liburuak eta geroztik mota guztietako generoetan aritu da: testuliburuak, saiakerak, goi-mailako dibulgazioa, erreferentziako obren itzulpenak, doktorego-tesiak... Horretaz guztiaz gainera, 1990. urtetik Uztaro, Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria kaleratzen du eta 2003. urtetik Kondaira.com, historiari buruzko aldizkari elektronikoa

Buruxkak liburutegi digitalaren helburua UEUk argitaratu dituen liburu, aldizkari eta doktorego-tesiak biltzea eta euskarri elektronikoa unibertsitario euskaldunei eskaintzea da, ikasteko, irakasteko, irakurtzeko eta ikertzeko erabil ditzaten.

2014an zehar, edukiak online jartzeaz gain, gure liburu eta artikuluei egileei elkarrizketak egin dizkiegu: Ane Abarrategi, Maddi Texeiro eta Amaia Mateosi, besteak beste.

Sarako Idazleen Biltzarra

Azken urteetan bezala, UEU Sarako Idazleen Biltzarrean egon da bere azken nobedadeekin. Idazleek elkar ezagutzeko gune, eta haien sorkuntzak naturalki ezagutzera emateko topagunea da biltzar hau, bai eta euskaraz eta euskal kulturari buruz argitaratzen dugun argitaletxeentzat ere.

Durangoko azokan

Urtero bezala, UEU Durangoko azokan egon da. Azoka euskarazko produkzio idatzian nahiz diskogintzan erreferentziala da. UEU unibertsitate mailako euskarazko produkzioan aitzindaria den heinean, ezinbestekotzat jotzen dugu urtero-urtero bertan egotea. Liburuak saltzea baino UEU eta bere lana ezagutaraztea da gure helburua azokan.

Informazio eta komunikazio teknologiak

Inguma datu-basea

Aurpegi berria. Hamalau urteko ibilbidea egin ondoren, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-baseak, Ingumak, aurpegi berria du 2014. urtean. Itxura berriaz gain, datu-baseko informazioa bilatzeko sistemak erraztu ditugu eta gehien erabiltzen ziren zerbitzuak: egileekin harremanetan jartzeko formulario eta ziurtagiri eskaerak, kanporatu ditugu. Horrez gain, Inguma edozein gailutik kontsultatu daiteke modu erraz eta erosoan.

Ikasturte hasiera. UEUk 2014/2015 ikasturte irekiera ekitaldia egin du Alondegian, Bilbon. Bertan, INGUMA datu-base berritua aurkeztu eta komunitate zientifiko euskaldun indartsu bat izateko elkarlanerako deia egin du. Karmele Artetxe Historian doktoreak euskararen azpiegitura zientifikoa finkatzeko Euskal Unibertsitatea beharrezkoa dela azaldu du bere sarrera hitzaldian.

Unibertsitatea.net

Ikerlari gazteei elkarrizketak. Euskal ikertzaileek egiten duten lana gizarteratzeko konpromisoarekin jarraitzen du Unibertsitatea.net atariak eta hamabostero, atariko Ziztu Bizian albistegian, euskal ikertzaile gazteak elkarrizketatzen ari gara. Otsailean ekin genion lanari eta dagoeneko hainbat dira elkarrizketatu ditugun ikerlariak: Estitxu Garai, Itxaro Perez, Asier Estevan, Ekaitz Agirregoitia, Amaia Pavon, Antton Alberdi, Iosu Razquin, Gorka Azkune, Uxo Anduaga, Itziar Garate, Manex Agirrezabal, Amaia Arroyo, madalen Goiria, Itziar Gonzalez-Dios eta Eneko Bidegain.

#txiotesia2. Unibertsitatea.net atariak bigarren urtez antolatu du "Txiokatu zure tesia 6 mezutan" lehiaketa. Lehen saria Itziar Gonzalez-Dios-entzat izan da, egiten ari den euskarazko testuen sinplifikazio automatikoari buruzko tesia laburtzeagatik, eta bigarren saria Eneko Bidegain kazetari eta irakaslearentzat izan da "Lehen Mundu Gerra Eskualduna astekarian" tesia koplatan laburtzeagatik. Ekimen honetan 46 ikertzaile euskaldun eta beraien lana ezagutzera eman baitira.

Doikuntza teknologikoa. Unibertsitatea.net orain edozein gailutan ikusteko moduan dago. Horretarako diseinu moldagarria aplikatu diogu (responsive) edozein gailuren pantailan egoki ikusteko: telefono adimentsuan, tabletean, ordenagailuan edota telebistan.

Tesiker

Tesiker egitasmoak euskaraz egindako doktorego-tesi eta ikerketa-lanen argitalpen digitala eta kontsulta publikoa ahalbidetzea du xede. *Tesiker* UEUK sortu eta diseinutako proiektua da eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren babesarekin 2007. urtean martxan jarri zen.

*Tesiker*ren abiapuntua Inguma datu-basea izan zen.

Honako hauek ziren *Tesiker* proiektuaren abiapuntuko helburu nagusiak:

- Euskaraz egindako doktorego-tesi guztiak biltzea eta katalogatzea.
- Doktorego-tesien edizio elektronikoa prestatzea.
- Doktorego-tesien edizio elektronikoa, Internet bidez, komunitate unibertsitario euskaldunaren eskura jartzea.

Gaur egun, 309 euskarazko tesien digitalizazioa dago, aurten digitalizaturiko 30 tesi berriak gehitu ondoren.

baitute.begiratu ohi dugu eszenategia, gure haur, gazte eta helduak makinan morroi bihurtuz. Irakaskuntza prozesuak hori baino gehiago izan behar dute, metodologiari eta moduei buruz ere hitz egin behar da. Azken finean IKTak hezkuntzaren mesedetan eta menpeko erabili behar dira eta ez alderantziz.

UEU.EUS web gunea

Aurten ikastaro berriak iragartzeko alarma sistemaren aplikazioa eta sakeleko telefonoetarako eta tableterako ueu.org web gunearen egokitzapena jarri ditugu martxan.

1. Alarma sistema, ikastaroen bozgorailu. Aplikazio honek helburu argia du: UEUK antolatzen dituen ikastaroen berri emango dio erabiltzaileari automatikoki. Tokiak, jakintza-arloak, ikastaro-motak eta alerten maiztasuna definitzeko aukera ematen du. Bi modu daude aplikazioa lortu ahal izateko: batetik, Googlen Play Store denda digitalean (<https://play.google.com/store/apps/details?id=ueu.org.IkastaroAlarmaZerbitzua&hl=es>), eta bestetik, proiektuak sareratzeko GitHub gunean (http://github.com/ueu-garapen/ikastaro_alarma_zerbitzua).
2. Web gunearen egokitzapena eramangarrietan, automatikoki. Web responsive Design metodologia jarraitu dugu eta era honetan, gailua dena delakoa izanda ere, automatikoki egokitzen da gailuaren pantailara. Kasu honetan ez dugu ezer gaitu behar, automatikoki agertuko zaigu gure tresna mugikorretan.

UEU #Kzjaia -n

#KulturaZientifikoa Lehen jaialdia antolatu zuen Jon Mattin Matxain kimikariak urtarriletik martxora bitartean. Egitasmoaren helburua zientziaren esparru anitzetako gaien berri sarean zabaltzea da epe zehatz batean. Bigarren ekitaldia udazkenean egin zen, Elhuyar izan zelarik anfitrioi. Lehen edizioan 119 ekarpen jaso ziren, eta bigarrean 59. Bi edizioetan UEUren ekarpena esanguratsua izan da, Unibertsitatea.net atariko elkarrizketak; Ingumak Laborategian, ALDIRI, Ekonomiaz jantzi eta Heterodoxia blogetako postak; Buruxkak atariko liburu-elkarrizketak eta ADITU DUZU? Saioko edukiek bertan parte hartu

Bilbon

Erribera kalea 14, 1D
48005 Bilbo
T (00 34) 94 679 05 46
F (00 34) 94 479 30 39
ldazkaritza@ueu.eus

Baionan

Arsenal plaza 1
64100 Baiona
TF (00 33) 05 59 25 60 56
iparraldea@ueu.eus

Eibarren

Markeskoa, Otaola 1
20600 Eibar
T (00 34) 943 82 14 26
F (00 34) 943 82 06 16
markeskoa@ueu.eus

Iruñean

Joaquin Beunza 13, behe
31014 Iruñea
T (00 34) 948 36 25 63
F (00 94) 948 38 46 59
nafarroa@ueu.eus

